

## Mikel Mazuela Larrañaga-k bere tesia irakurri du

2015/06/29

Ekainaren 19an, goizeko 12:00tan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Mikel Mazuela Larrañaga Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen Polo Garaiako Auditorioan. Tesiaren izenburua Análisis y desarrollo de una novedosa topología de convertidor multinivel para aplicaciones de media tensión y alta potencia eta tesi zuzendaria: Igor Baraia. Gainera Bikain Cum Laude kalifikazioa lortu zuen.

Epaimahaia horrela osatu zen:

- Mahaiburua: Salvador Alepuz Menéndez (Fundación TecnoCampus Mataró Maresme) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Estanislao Oyarbide Usabiaga (Universidad de Zaragoza) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Silverio Alvarez (ABB Corporate Research Center) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Jesús Lopez Taberna (Universidad Pública de Navarra) Dk. Jn.
- Idazkaria: Jon Andoni Barrena Bruña (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.

Potentzia elektronikoko bihurtailuek paper garrantzitsu bat jokatzen dute Tentsio Ertaineko drive aplikazioetan. Maila anitzeko topologiek transformadore gabe lan egin dezakete Tentsio Ertainean kalitate oneko irteera uhin bat sintetizatuz. 5L-MPC maila anitzeko bihurtailua 6.6kV-ko aplikazioetarako aukera interesgarri bat da. Tesi honetan erdieroaleen konexioa seriean egiten denean sortzen den arazoari irtenbidea eman zaio eta topologia honi datzekion bus tentsioen oreka.

